

Lehen «round»-a

Joxean AGIRRE

Hitzek, hala esan ohi da, sentipenak adierazten dizkigute, gure barreneko sentimenduak kanporatzeko balio dute; hitzak entzunez edo irakurriz besteen bizitzetan sartzen gara eta haiekin batera sufritzen, gozatzen dugu.

Zifrak, aldiz, hala esan ohi da, hotzak dira, neutroak. Haiei begira, lau zenbaktik gorakoak direnean zorabiatu egin gaitezke edo buruko mina eragiten diezagukete. Hala pentsatzen nuen nik ere hauteskunde gauean ohartu nintzen arte zifrek ere sekulako indarra dutela gure barruko bizipenak adierazteko. Ikusten nituen lau edo bost zenbakiko zifrak telebistaren pantailan edo portzentajeren bat eta bozkarioak hartzen zidan barrera edo zorion halako batek bihotza, sofatik altxatu eta «to!», esaten nuen eta txaloka hasten nintzen, futbolzale ohikoen antzera.

Badakit porrotaren patura ohitutakoen “poxa” dela hori. Bizitza erdia pasa generaman, bizitza osoa ia, EAJ-rekiko lehia etsian, familiako sestra horretan beti galtzaile izango ginela pentsatuz. Freudek esaten zigun, modu metaforikoan noski, aita hil behar genuela helduak izatera iristeko, baina zein zaila den aita hiltzea, hauteskundeak joan eta hauteskundeak etorri, irabazi egiten baitzigun.

Zenbat aldiz ez ote dugun irudikatu gure burua zahartzaroan, 90 urterekin esate baterako, bizkarra okertuta eta bastoi batekin ozta-ozta hankak arrastatuz, bufanda ziztrin bat lepoan, hauteskunde biharamunean egunkaria irakurtzen hasi eta ahapeka «orain ere irabazi zigutek», esaten.

Azken hauteskunde gauean, ordea, oskarbi une bat ikusi genuen. Ez dut esango aita hiltzera iritsi ginenik, bai-

na susto ederra eman genion, sustoa baino gehiago ere bai, pitin bat grogi, durduzatuta ikusi baikenuen. Andoni Ortuzar atera zen esaten nota hartzen zutela eta gogoeta egingo zutela. Nik gogo-jardunak astebetez luzatuko ziztutela irudikatzen nuen, Sabin Etxean bertan edo Loiolako Gogartetxean, zer pentsatua ez baitzitzaien falta, alafede!, baina zeinen azkar aspertu ziren gogoetekin, zeinen azkar suspertu ziren, bigarren egunerako ituna berregiten ari zirela iragarri baitzuten, lehenean jarraitu ahal izateko, ahal zuten lekuetan bederen.

Nik pare bat egun pasatu nuen batuketak eta kenketak egiten. Ez dut uste hainbeste batuketa egin dudanik etxea erosteko mailegua eskatu nuenetik. Ez dugu aitarik hil, baina diogun lehen *round*-a ez zela hain gaizki amaitu. •

Alkoholaz hausnarketa bat

Asier AIESTARAN

Kasturte amaierako jaialdiaren hari-
ra atera da gaia guraso talde batean.
Bidezkoa al da eskola eremuan eta
eskola komunitate osoarentzat pen-
tsatutako festa batean alkohola saltzea
eta alkohola kontsumitzea –helduez ari
naiz, noski–? Zer eragin dauka, baldin
badu, alkoholaren presentziak/normali-
zazioak jaialdi horretan parte hartzen
duten gaztetxoaren artean?

Hasieratik onartuko dut erantzun bo-
robilik ez daukadala, baina galdera egi-
teak berak eta hausnarketarako tarte bat

hartzeak aurrerapausoa suposatzen
duela esango nuke. Fokua apur bat za-
balduz, herri eta auzoetako jaiak bata
bestearen atzetik lehertzen hasiko diren
honetan, antzeko eztabaidak sortu dai-
tezke gure jai ereduaren inguruan. Zer
zilegitasun dugu gurasook, eta helduok
oro har, gazteei alkoholari –edo beste
droga batzuei– buruz hitz egiteko ga-
raian?

Erabateko debekuak ez dirudi irtenbi-
de burutsuena, horretan gehiengoa
ados dagoela esango nuke, eta jarrera

hedatuena erabilera “egokia” bideratzen
saiatzea da. “Egoki” kontzeptuari neu-
rria hartzea ez da erraza, ordea, eta hor-
txe hasten dira katramilak.

Ertz ugari dituen gaia da, ikuspuntua-
ren arabera galdera berriak eta kezka la-
rriagoak sortzen dituen, baina berriz
ere hasierako ideia itzulita, uste dut
gakoetako bat norbere ardurak onartzea
dela. Gaztetxo horiei zer esango diegun
bezain garrantzitsua dela norbere joka-
bideaz hausnartu eta izan ditzakeen on-
dorioak asumitzea. •